

***Asto Erregea* bihar estreinatuko da Euskadiko eta Nafarroako zine- aretoetan**

Pakistango animaziozko film dibertigarria euskaraz ikusi ahalko dugu bihartik aurrera gure lurraldeko zinemetan Zineuskadik sustatutako Zinema Euskaraz programari esker.

Egitasmo honen bitartez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak haurrei eta gazteei zuzendutako pelikulen bikoizketa bultzatzen du, baita euskara sustatu ere zinemaren sektorean. Ekoizpen hau hamaikagarren animaziozko filma da aurten **Zinema Euskaraz** programan.

Asto Erregea publiko guztientzako egokia den umorezko eta abenturazko filma da, eta ekologia, animalianenganako errespetua eta maitasuna bezalako gaiak lantzen ditu, baita zenbait balio politikoen aldeko defentsa egin ere: demokrazia eta inposatutako sistema politikoen eta ustelkeriaren aurkako borroka, adibidez.

Aziz Jidanik zuzendutako filmak hauteskunde kanpaina baten istorioa kontatzen du. Lehoi Erregea, oihaneko burua, erretiroa hartzekotan da. Bere ondorengoak sinesgarritasuna irabaz dezan, Miss Fina aholkulariarekin batera hauteskundeak deitzea erabaki du. Mangu asto apala, zoriontsu da bere garbitzaile bizimoduarekin, baina ustekabeen herritarren hautagai bihurtuko da, eta Hantusteusi, Lehoi Erregearen legezko oinordekoari, aurre egin beharko dio.

Manguk baina, ez daki bere hautagaitza Miss Finaren plan maltzuraren parte dela. Honen asmoa, Lehoi Erregea tronutik kentzea da, eta haren semea ondorengotzatik kanpo uztea. Hartara, tronua kontrolatzeko aukera izango du, bere agindupean dagoen hautagai baten bidez. Lortuko ote du Manguk emandako hitza betez errege izatea? Ala, Miss Finaren txotxongilo hutsa izango ote da? Has bedi hauteskunde kanpaina!

Filma honako zine-aretoetan estreinatuko da euskaraz: Golem Alhóndiga (Bilbo), Florida zinemak (Gasteiz), Getxo Zinemak, Torrezabal zinema (Galdakao), Gran Cinema Zugaza (Durango), Niessen Zinemak (Errenteria) eta Principe zinema (Donostia).

Zinema
EUSKARAZ

ZINEUSKADI 

Informazio gehiago:

Jara Ayucar

komunikazioa@zineuskadi.eu

+34 636 80 62 21 www.zineuskadi.eu